

NEGOZIAZIOA ETA PLANTILLEN EGONKORTZEA ORAIN

GURE HEZKUNTZA ETA LAN BALDINTZEN ALDE BORROKA DEZAGUN

Hemen bildu garen sindikatuok Hezkuntza Sailaren jokabidea salatu nahi dugu, gure lan baldintzak eta gure ikastetxeen egunerokoa baldintzatuko duen erabakiak hartzerako orduan. Besteak beste, gardentasun falta, alde bakarreko erabakiak akordioaren puntuen planteamenduan edo sindikatuekin negoziatu edo hauei berri eman gabe ikastetxeetara informazioa helaraztea.

Batetik, ikastetxeen egonkortasuna bermatzeko ezinbestekoak diren estabilizazioprozesuei dagokionez; Espainiako Gobernutik datorren legedia eta denbora epeak langileongure mesedetan aplikatzeko bideak ez bilatzeagatik. EAEn ez baitugu izangaur gaurkozlanpostuak identifikatzeko edo negoziatzeko aukerarik jasø, eta Hezkuntza Sailak informatu bai, baina negoziatzeko aukera ukatu digu oraingoan ere.

Bestetik, akordioen bidez adostu nahi diren bestelako lan baldintzei dagokionez, Sailak gure lan zama arintzeko neurri gehiago ezarri ditzan exijitzen diogu eta aldebakarrez ezarri nahi dituen neurriak bertan behera uzteko:

- Hezkuntza Sailak hautagaien zerrenda oposizio emaitzekin lotu nahi du. Ulergaitza honek dakartzan ondorio tamalgarrien eredia, adibide gisa, Nafarroako eredia dugu. Langile guztiak beti oposizioak prestatzen aritu beharko dira ikastetxeen kalterako, eta azterketa zeharo memoristikoa bultzatzen du, honek antzinatasunak baino pisu gehiago izango duelarik.
- Lan zama arindu beharrean, gaur gaurkoz dugun lan burokratiko eta pertsonalari jaramonik ez. 30 orduko presentzialitate asmoen gainetik, Sailak argi adierazi dezala ikastetxeko-dedikazioa esaten denean ez diola presentzialitateari erreferentziarik egiten; eta Bigarren Hezkuntzan lan zamak arintzeko neurri eraginkorrak ezarri ditzala. Gainera, uztailean ikastetxean egoteko beharraz, argipen zehatzak egin ditzala: klaustroaren erabakimenez eta lanaldia inolaz ere gainditu gabe.

Gure lan baldintzetan, eta ondorioz ikastetxeetan eragin zuzena izango duten neurri hauen aurrean, ezinbesteko deritzogu mobilizatzea. Horregatik, STEILAS, LAB, CCOO eta UGT sindikatuok maiatzaren 18an elkarretaratze bat deitzen dugu Lakuan, eguerdiko 12:00etan. Zuek ere gurekin bat egin dezazuen, maiatzaren 24ean, zuen ikastetxeetan kontzentratzera gonbidatzen zaituztegu eta argazkiak sare sozialetan elkar banatzera edota zuen sindikatura bidaltzera.

BORROKATU DEZAGUN GURE LAN BALDINTZEN ALDE!



NEGOCIACIÓN Y ESTABILIZACIÓN DE PLANTILLAS, ¡YA!

LUCHEMOS POR NUESTRA EDUCACIÓN Y NUESTRAS CONDICIONES LABORALES

Los sindicatos hoy aquí reunidos queremos denunciar la actuación del Departamento de Educación a la hora de tomar decisiones que van a marcar nuestras condiciones laborales y el día a día de nuestros centros. Entre ellas, la falta de transparencia, las decisiones unilaterales en el planteamiento de los puntos del acuerdo regulador o la transmisión de información a los centros sin negociar o informar a los sindicatos.

Por un lado denunciaremos, en lo que toca a los procesos de estabilización imprescindibles para garantizar la estabilidad de los centros, porque no se han buscado vías para aplicaren nuestro beneficio la legislación y los plazos de tiempo que provienen del gobierno español. En la CAV no hemos recibido la posibilidad de identificar o negociar los actuales puestos de trabajo, y el Departamento nos ha informado, pero nos ha vuelto a negar la posibilidad de negociar.

Por otro lado, en relación con otras condiciones de trabajo que se pretenden acordar mediante acuerdos, exigimos al Departamento que establezca más medidas para aliviar nuestra carga de trabajo y que retire las medidas que unilateralmente pretende implantar:

- Hezkuntza quiere vincular la lista de personas candidatas a los resultados de la oposición. El incomprensible modelo de lamentables consecuencias que esto conlleva, lo tenemos, como doloroso ejemplo, en Navarra. Así, todo el personal va a tener que estar continuamente preparando oposiciones, en detrimento de los centros, y se favorece además un examen totalmente memorístico, que tendrá más peso que la antigüedad.
- En lugar de aligerar la carga de trabajo, el Departamento ha hecho caso omiso del volumen de trabajo burocrático y personal que tenemos hoy en día. Exigimos que, más allá de su intención de las 30 horas de presencialidad, el Departamento manifieste que cuando dice “dedicación al centro” no se refiere a la “presencialidad”, y que establezca medidas eficaces para aliviar las cargas de trabajo en Secundaria. Así mismo, exigimos que realice aclaraciones precisas sobre la necesidad de permanecer en el centro durante el mes de julio, con la decisión del claustro y sin superar, en ningún caso, la jornada laboral.

Consideramos imprescindible movilizarnos ante estas medidas que repercutirán en nuestras condiciones de trabajo y, en consecuencia, directamente en los centros. Por eso, los sindicatos STEILAS, LAB, CCOO y UGT convocamos una concentración el día 18 de mayo en Lakua, a las 12:00 del mediodía. Con la idea de que vosotras y vosotros podáis sumaros a nosotros en esta movilización, os invitamos a concentraros el día 24 de mayo en vuestros centros, y a compartir fotografías de las concentraciones en las redes sociales o enviarlas a vuestro sindicato.

¡ LUCHEMOS POR NUESTRAS CONDICIONES DE TRABAJO !

